

5.a	1. EZAGUTZA FITXA	OBJEKTU TEKNIKOAREN AZTERKETA ETA DISEINUA <i>Jakin behar dudana</i>	

EZAGUTZAK :	MAILA :	GAITASUNAK :
Energia katea : elikadura, banaketa, biltzea, eraldaketa eta garraiatzea	2 (« badakit aipatzen»)	- objektu tekniko baten sartze-energiak eta ateratze-energiak identifikatu.
	1 (« badakit»)	- energia eraldaketak identifikatu.
	1 (« badakit»)	- objektu tekniko baten energia-katearen elementu ezberdinak identifikatu eta eskema estruktural baten bidez erakutsi.

Oinarri bateratua

3	Zientzia eta teknologia desmartxa erabili	Energia : forma ezberdinak forma batetik bestelako eraldaketak.
---	---	---

1- ENERGIA-KATEA

Energia-katearen bidez bizitegi baten hainbat muntaduren (edo ekipamendu) funtzionamenduan baita ere **bero** eta **argi ekoizpenean** parte hartzen duten **elementu guziak** adierazten dira.

1-1 Sartze-energia eta ateratze-energia

Sartze-energia sistemari **ematen** zaion energia da.
Ateratze-energia energia **baliagarria** da.





1-2 Energia eraldaketa

Energia **eraldaketa** gertatuko da elementu batek **kontsumitutako** energia **bertze gisa** batez itzuliko duelarik.

Energia eraldaketa nagusiak bizilekuetan :
argiztapenari esker energia elektrikoa argi bilakatzen da,
berogailuak elektrizitatea bero bihurtzen du, **idekiduren kontrolak** (leiho - portale) energia elektrikoa energia mekaniko bihurtzen du.

Energia elektrikoaren ekoizpen adibide bat : **eguzki panel fotovoltaikoa**



sistema

1-3 Energia-katearen zati ezberdinak

Elikadurak energia hornitzen du sare edo sistema autonomo baten bidez.



Adibidez : zentral nuklear batek sare elektrikoa elikatzen du.



Adibidez : panel fotovoltaikoek energia elektrikoa hornitzen dute eguzki energia eraldatuz.

Metatzeak energia edo honen ekoizteko beharko diren erregaiak biltzen ditu.



Adibidez : bateriak energia elektrikoa metatzen du.



Adibidez : upelak energia ekoizteko beharko den erregaiak metatzen du.

Banaketak energia gure esku ezartzea kudeatzen du.



Adibidez : etengailuak energia elektrikoaren zirkulazioa manatzen du.



Adibidez : berogailuaren giltzak energia termikoaren pasatzea manatzen du.

Eraldaketak energiaren izaera aldatzen du.



Adibidez : lanpak energia elektrikoa argi bihurtzen du.



Adibidez : konbektziozko berogailuak energia elektrikoa bero bihurtzen du.